

f) Ikastetxearen kudeaketan parte-hartzea eta lankidetzan aritzea*1. maila: Oinarrizkoa**2. maila: Garatze bidean**3. maila: Garatua**4. maila: Aurreratua*

Gutxi aritzen da lankidetzan zuzendaritza taldearekin ikastetxearen beraren eta ikastetxean egiten diren jarduera hezigarrien funtzionamendu egokia bermatzeko.

Ez du aintzat hartzen ikastetxeko dokumentu orokorren edukia.

Ez du proiektuetan parte hartzen, ezta horien gaineko konpromisorik hartzen ere.

Ez da agertzen kide den kide anitzeko organoen bileretara, eta ez du hutsegitea justifikatzeko arrazoirik.

Ez ditu organo horien hitzarmenak edo jarraibideak errespetatzen eta/edo maiz jartzen ditu eragozpenak horiek betetzeko.

Ez du ikasgelan eskolak ematearekin zuzenean zerikusirik ez duen ezer egin nahi (ikastetxeko urteko planean jasotako jarduera osagarriak).

Uko egiten dio ikastetxearen kudeaketarekin zerikusia duen erantzukizun oro hartzeari (zuzendaritza-karguak...)

Zuzendaritza-taldearekin lankidetzan aritzen da hala eskatzen diotenean.

Bere egiten du ikastetxeko dokumentu orokorretan xedatutakoa.

Eskolako proiektuetan parte hartzen du. Kide den kide anitzeko organoen bileretara bertaraten da.

Ezagutu eta bete egiten ditu kide anitzeko organoen hitzarmenak eta jarraibideak.

Ikastetxeko lanaldi arruntean ikasgela barruko nahiz kanpoko eskola-jardueretan (jarduera osagarriak) hartzen du parte.

Ez dio uko egiten ikastetxearen kudeaketarekin zerikusia duten erantzukizunak hartzeari (zuzendaritza-karguak, etab.).

Sistematikoki aritzen da lankidetzan zuzendaritza-taldearekin, eta erraztasunak ematen ditu taldeak ikastetxearen beraren eta ikastetxeko jardueren funtzionamendu egokirako. Aktiboki hartzen du parte ikastetxeko dokumentu orokorren prestaketan, eta ekarpenak egiten ditu.

Ikastetxeko eta ingurune ko proiektuetan parte hartu eta inplikatzan da. Proiektuak biribiltzen dituzten ideiak ematen ditu, eta aktiboki egiten ditu ekarpenak proiektuok arrakastatsuak izan daitezen.

Modu kritikiko eta eraikitzailean onartzen ditu ebazpen eta jarraibideak. Aktiboki hartzen du parte kide den kide anitzeko organoen bileretan.

Lankidetzan aritzen da adostasunak lortzeko, eta adostasunetara iristeko ideiak ematen ditu. Aktiboki parte hartzen du ikasgela barruan eta kanpoan egiten diren eskola-jardueren antolaketa eta kudeaketa egiteko lanetan.

Prest dago ikastetxearen kudeaketarekin zerikusia duten erantzukizunak hartzeko (zuzendaritza-karguak, etab.).

Ideiak ematen ditu, konponbideak proposatzen ditu edo zuzendaritza-taldeari eskaintzen dizkion proiektuak diseinatzen ditu, ikastetxearen beraren eta ikastetxeko jarduera hezigarrien funtzionamendu egokia errazteko.

Zuzendaritza-lanetan eraginkortasunez aritzen da. Ikastetxeko dokumentuen prestaketa zuzentzen du. Ikastetxeko proiektuak zuzentzen ditu.

Konpromiso argia du ikastetxearen funtzionamenduaren hobekuntzarekiko eta planteatutako helburuekiko.

Proposatutako helburuak betetzeko neurriak zuzentzen, dinamizatzen eta osatzen ditu kide anitzeko organoen aurrean egindako esku-hartze eta proposamenen bidez.

Ikastetxean programa akademikoa osatzen eta indartzen dituzten eskola-jarduerak proposatzen, antolatzen eta zuzentzen ditu.

Bere emaitzak aztertzen ditu etengabe hobetzeko. Eskola-komunitateak aitortu egiten ditu irakaslearen inplikazioa eta sustatzen dituen jardueren balio erantsia.